



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 11

112. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-22/DEC-00040. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Bularreko Minbizi Metastasikoaren Munduko Eguna ospatzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

—10-22/POR-00318. Galdera, Barne Ministerioaren 2021eko Gorroto-delituen bilakaerari buruzko txostenari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (4. or.).

—10-22/POR-00319. Galdera, Silenciosos Falces enpresan enplegua mantentzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (5. or.).

—10-22/POR-00320. Galdera, Lizarrako Ospitalean Hemodialisi Unitate bat ezartzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (5. or.).

—10-22/POR-00321. Galdera, Nafarroako Kutxaren ondaretik “galdutako” 157 artelan berreskuratzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (6. or.).

—10-22/POR-00322. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko ZIUko zerbitzuburu eta Nafarroako ZIU guztien koordinatzaile denak dimisioa aurkezteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).

—10-22/POR-00323. Galdera, ingelesez ikasteko programa Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredu bihurtzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (7. or.).

—10-22/POR-00324. Galdera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonendako zerbitzuak kreditatzearekin lotutako akordio bat, Nafarroako eskumen eksklusiboetan sartzeko dena, hartzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).

—10-22/POR-00325. Galdera, Nafarroako Polizieari buruzko 23/2018 Foru Legea, ordutegien, lanaldien eta ordainsarien erregelamenduari dagokionez, betetzeari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (8. or.).

—10-22/POR-00326. Galdera, Nafarroako industriaren sektorean gaur egungo inbertsio- eta enplegu-mailei eusteko neurri politikoei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (9. or.).

- 10-22/POR-00327. Galdera, “Bestelako turismo bat” kanpainari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (9. or.).
- 10-22/POR-00328. Galdera, funtzionarioei soldata igotzeari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (10. or.).
- 10-22/POR-00329. Galdera, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen ez duten familiei jantokiko dirulaguntza kentzeko erabakiari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (10. or.).
- 10-22/POR-00330. Galdera, Bardeako suteari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- 10-22/POR-00331. Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legeak agindutako erregelamendu-garapena gauzatu ahal izateko legezko gaitasunari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- 10-22/POR-00332. Galdera, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan Nafarroako aurreikusitako inbertsioei buruzkoa. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (12. or.).
- 10-22/POR-00333 Galdera, suizidioagatiko heriotzei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (13. or.).
- 10-22/POR-00334. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicaren artean NBEak erosteko adostutako hitzarmenari buruz eskatutako informazioaren gainekoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- 10-22/POR-00335. Galdera, gure komunitateko enpresei kostu energetikoen igoerari aurre egiten laguntzeko neurriei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 10-21/POR-00436. Cop26 konferentziaren emaitzei buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).
- 10-22/POR-00295. Galdera, Alde Zaharra/II. Zabalguneko sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentzoko emagin-defizitari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/DEC-00040. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Bularreko Minbizi Metastasikoaren Munduko Eguna ospatzearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Bularreko Minbizi Metastasikoaren Munduko Egunaren ospakizunarekin. Aurten, ‘lkerketa gehiago bizi izateko’ izango da egunaren goiburua.

2. Nafarroako Parlamentuak datorren osteguneko –urriak 13– Osoko Bilkuran irakurriko du

adierazpen instituzionala, eta azalpenezko bideo labur bat emango dute atalondoan.

3. Nafarroako Parlamentuak eraikinaren faxada argizatuko du urriaren 13an, bularreko minbizi metastasikoa duten pertsonetikiko elkartasuna adierazte aldera”.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00318. Galdera, Barne Ministerioaren 2021eko Gorroto-delituen bilakaerari buruzko txostenari buruzkoa.*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Barne Ministerioaren 2021eko Gorroto-delituen bilakaerari buruzko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Barne Ministerioaren 2021eko Gorroto-delituen bilakaerari buruzko txostenean jasotakoaren arabera, nahiz eta gure Komunitatean delitu horiek % 11,7 murriztu diren aurreko urtearekin alderatuta (45 delitu; horien artetik, 23 ideologiagatikoak, 12 arrazakeriazkoak, 4 sinesmen edo jarduera erlijiosoen aurkakoak, 4 sexu- edo genero-joeragatikoak, 1 desgaitasunarekin lotutakoa eta 1 belaunaldiagatiko diskriminazioarekin lotutakoa), Nafarroa estatuko bigarren komunitatea da mota horretako delituen tasari dagokionez.

Zer balorazio egiten dio Nafarroako Gobernuak txosten horren edukiari, eta zer jarduera ditu aurreikusita, eta zer esparrutan, horrelako delituak desagerraraztea lortzeko?

Iruñean, 2022ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-22/POR-00319. Galdera, Silenciosos Falces enpresan enplegua mantentzeari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak Silenciosos Falces enpresan enplegua mantentzeari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den apirilaren 18an, ihes-hodiak fabrikatzen dituen Silenciosos Falces enpresako buruek langileen ordezkariari jakinarazi zieten konpainia likidatzeko asmoa dutela. Horren aurrean:

Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak eta zer aukera aztertu ditu enpleguari eusteko?

Iruñean, 2022ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

10-22/POR-00320. Galdera, Lizarrako Ospitalean Hemodialisi Unitate bat ezartzeari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Ospitalean Hemodialisi Unitate bat ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordearen bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021eko ekainaren 29an, Osasun Batzordearen bilkuran, aho batez onetsi zen EH-Bilduk aurkeztutako mozioa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioen zuzenketekin, eta honako erabaki hau onetsi zen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lizarrako Osasun Barrutiaren egoera azter dezan, giltzurruneko patologiarik eta, zehazki, hemodialisari dagokionez, terapia hori behar duten gaur egungo pazienteen kopurua eta terapia hori eskatzen dutenen hazkundeari buruzko perspektiba baloratzeko, García Orcoyen ospitalean hemodialisiko unitate bat sortu behar den ala ez baloratzeko.

2. Azterlanaren emaitzak horretarako bidea ematen badu, Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du Hemodialisiko Unitatea eraiki-

tzeko azterlana lehenbailehen lizitzatzeko eta 2022an obrak hasteko.

Azterlanak ez badu justifikatzen Hemodialisiko Unitatea ezartzea, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du azter eta balora ditzan paziente horiek tratamendua jasotzeko joan-etorrietarako modalitateak, nahitaezko bidaiek eragindako eragozpenak ahal den gutxian gutxitze aldera”.

2021. urtean Nafarroako Parlamentuan onetsitako erabakien betetze-mailari buruzko doku-

mentuan, egoera honetan ageri da mozio hori: bete gabe; bestelako arrazoiak.

Hori ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

Nola arrazoitu edo azaldu daiteke mozioa onetsi eta urtebete igaro den honetan oraindik baloraziorik egin ez izana Lizarrako Ospitalean Hemodialisi Unitate bat ezartzeari buruz?

Iruñean, 2022ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

10-22/POR-00321. Galdera, Nafarroako Kutzaren ondaretik “galdutako” 157 artelan berreskuratzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren ondaretik “galdutako” 157 artelan berreskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, idazki honen bidez, eta Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du inolako jarduketarik Nafarroako Kutzaren ondaretik “galdutako” 157 artelanak berreskuratze aldera?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

10-22/POR-00322. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko ZIUko zerbitzuburu eta Nafarroako ZIU guztien koordinatzaile denak dimisioa aurkezteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko ZIUko zerbitzuburu eta Nafarroako ZIU guztien koordinatzaile denak dimisioa aurkezteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak osasun-alorreko arduradunek noiztik zekiten Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko ZIU Zerbitzuko burua eta Nafarroako ZIU guztien koordinatzailea denak dimisioa aurkezteko asmoa zuela, eta zer neurri hartu ditu Gobernuak ordutik joan den irailaren 29ra arte – data horretan berak eman baitzien dimisioaren berri bere zerbitzupeko langileei–?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/POR-00323. Galdera, ingelesez ikasteko programa Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredu bihurtzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, ingelesez ikasteko programa Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-eredu bihurtzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

11/2022 Foru Legearen 4. xedapen gehigarriak ezartzen du Hezkuntza Departamentuak dagokion prozedura hasiko duela ingelesez ikasteko programa Nafarroako hezkuntza-sistemako hizkuntza-ereduetako bat izan dadin.

Zer jarduketa egin ditu Hezkuntza Departamentuak gaur arte, lege-xedapen hori betetze aldera?

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

10-22/POR-00324. Galdera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonendako zerbitzuak kreditatzearekin lotutako akordio bat, Nafarroako eskumen eskusiboetan sartzen dena, hartzeari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonendako zerbitzuak kreditatzearekin lotutako akordio bat, Nafarroako eskumen eskusiboetan sartzen dena, hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroari eragiten dioten gai guztietan Madriren interesen mende jarduten jarraitzeko asmoa al du lehendakariak, berriki egin duen eran, mendekotasun-egoeran dauden pertsonendako zerbitzuak kreditatzearekin lotutako akordio bat onetsi baitu, osoki Nafarroaren eskumena izan arren?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

10-22/POR-00325. Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legea, ordutegien, lanaldien eta ordainsarien erregelamenduari dagokionez, betetzeari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legea, ordutegien, lanaldien eta ordainsarien erregelamenduari dagokionez, betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehen lehendakariorde eta Lehendakariako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri edo ekimen gauzatu ditu, ari da gauzatzen edo gauzatzeko asmoa duzu Nafarroako poliziei buruzko 23/2018 Foru Legea betetze aldera, Foruzaingoaren jardunaldiei eta ordainsariei dagokienez?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

10-22/POR-00326. Galdera, Nafarroako industriaren sektorean gaur egungo inbertsio- eta enplegu-mailei eusteko neurri politikoei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako industriaren sektorean gaur egungo inbertsio- eta enplegu-mailei eusteko neurri politikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Nola erantzungo dio lehendakariak Nafarroako industria sektorearen aldarriari, neurri politikoetan aldaketak egitea eskatzen ari baitira, gaur egungo inbertsio- eta enplegu-mailei eutsi ahal izateko?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

10-22/POR-00327. Galdera, “Bestelako turismo bat” kanpainari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak “Bestelako turismo bat” kanpainari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kon-

tseilariak urriaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Uda baino pixka bat lehenago, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak “Bestelako turismo bat” kanpaina aurkeztu zuen. Bada, dagoeneko igaro da lehen uda sasoia, eta garai horretan izaten du garapen handiena jarduera turistikoak, hain zuzen ere.

Hori horrela, atzera begiratzeko unea da –baita aurrera ere, noski–, eta kanpainaren lehen balorazioak egiteko unea.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zein ziren kanpainaren xedeak, eta kanpainaren zer balantze egiten duzu joan den ekainean aurkeztu zenetik gaur arte igaro diren hilabeteak kontuan hartuta?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

10-22/POR-00328. Galdera, funtzionarioei soldata igotzeari buruzkoa.*MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak funtzionarioei soldata igotzeari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Inma Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak 2022ko urriaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola eragingo die Nafarroako funtzionarioei Espainiako Gobernuak sindikatuekin adostutako soldata igoerak?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Inma Jurío Macaya

10-22/POR-00329. Galdera, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen ez duten familiei jantokiko dirulaguntza kentzeko erabakiari buruzkoa.*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen ez duten familiei jantokiko dirulaguntza kentzeko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren elehun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zenbait ikastetxetako zuzendaritza taldeek jakinarazpen bat igorri dute Hezkuntza Departamentura, eskolaldi jarraitura igaro izanak familia batzuei eragin dien egoera agerian uzteko. Zehazki, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren azaroaren 5eko 114/2019 Ebazpena aipatzen dute, eskolaldi jarraituaren ezarpena arautzen duena. Xedapen horrek honako hau dio 6. puntuan, 2. apartatuan: "Eskolaz kanpoko jarduerak bukatu ondoren aterako da garraioa". Eta 8. puntuan adierazitakoa ere aipatzen dute, honako hau zehazki: "Eranskin honen 6.2 puntuak aintzat hartzen duen ordutegia aitzinatzen ahalko da, betiere garraiorako ibilgailu bera erabiltzen duten ikasle guztien adostasuna lortuz gero, eta aldaketa horrek ukitzen ez badu ez garraioa partekatzen duten gainerako ikastetxeekiko koordinazioa, ez adjudikaziodunaren plangintza, ezta jantokiaren antolaketa ere".

Zuzendaritza talde horiek azpimarratzen dute inon ez dela aipatzen eskolaz kanpoko jardueretan parte ez hartzeagatik familiek jantokirako dirulaguntza galtzen ahal dutenik, baina ikasturte honetan, hain zuzen ere, dirulaguntza kendu zaie familia horiei.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

Zergatik erabaki da eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen ez duten familiei jantokiko dirulaguntza kentzea, eta nola erantzungo zaio horrek dakarren egoerari?

Iruñean, 2022ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-22/POR-00330. Galdera, Bardeako suteari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Bardeako suteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasuneko galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Poligonoaren aurkako Batzarrak salatu berri du sute bat gertatu dela Bardeako kontserbazio bereziko eremuan, armadak benetako suarekin egindako maniobrek eragina, ziur aski. Europa mailako babesa duen eremu batean tiro-poligono bat baimentzearen ondorio lazgarriak dira horiek, gogoan hartu behar baita instalazio militar hori kontserbazio bereziko eremuaren barruan dagoela.

Ezin da ulertu nolatan baimentzen den horrelako jarduera bat Europa mailako interesa duen eta KBE gisa babestuta dagoen habitat batean, tiro-poligono batean gauzatzen diren ekintzak oso kaltegarriak baitira ingurumen balioetarako. Sute honetan, balio ekologiko handiko elementuak kiskali ditu suak. Gogoratuko duzuen eran, tiro-poligonoan dago Dupont hegatzabalaren Nafarroako populazio urrietako bat. Gainera, txoriandre pispoletak, ganga azpizuriak, atalarrak eta ganga azpibeltzak ere bizi ziren erretako eremuan. Sutearen eraginak pairatuko zituzten, orobat, hainbat intsektuk, anfibiok eta ornogabek; barraskiloek, esaterako.

Karga leherkorrik gabeko suarekin egiten diren maniobrak arriskutsuak dira, eta munizio erreala-ekin egiten direnak are arriskutsuagoak. Hori guztia armadaren isiltasun osoz, ez baitute inolako informaziorik edo azalpenik ematen; agerikoa da Nafarroan eta Aragoi bizi den kezka soziala mespretxatzen dutela.

Oraingo honetan, maniobren ondorioetako bat izan da diru publikoa bideratu behar izan dela gerraren suak sortutako suteak itzaltzeko.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Bardeako suteari buruz –armadaren maniobrek eragina ziurrenik–, kontuan hartuta Natur Parke eta Biosferaren Munduko Erreserba den inguru batean gertatu dela?

Iruñean, 2022ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

10-22/POR-00331. Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legeak agindutako erregelamendu-garapena gauzatu ahal izateko legezko gaitasunari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legeak agindutako erregelamendu-garapena gauzatu ahal izateko legezko gaitasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarri-

takoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, urriaren 13ko Osoko Bilkuran erantzun diezaioten:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak behin eta berriro adierazi du ezin duela gauzatu Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legeak agindutako erregelamendu-garapena, legezko gaitasuna lortzen ez duen bitartean.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Gobernuari:

Zer jarduketa egin ditu edo egingen ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legeak agindutako erregelamendu-garapena gauzatu ahal izateko Estatuko Gobernuari eskatutako legezko gaitasuna lortze aldera, ordainsarien alorreko gairen bat barne hartzen duten erregelamenduei dagokienez bereziki?

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-22/POR-00332. Galdera, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan Nafarroarako aurreikusitako inbertsioei buruzkoa.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan Nafarroarako aurreikusitako inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak urriaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuan Nafarroarako aurreikusitako inbertsioei buruz?

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

10-22/POR-00333 Galdera, suizidioagatiko heriotzei buruzkoa.*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, suizidioagatiko heriotzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezte du, Osasuneko kontseilariak 2022ko urriaren 13ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Suizidioaren Behatokiak dioenez, joan den urtean, suizidioagatiko heriotzak hiru aldiz gehiago izan ziren trafikoak eragindakoak baino.

Dirudienez, irtenbideak eta tratamenduak ez dira eraginkorrak izaten ari.

Bestelako zer irtenbide eta tratamendu ari da aztertzen Gobernua?

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

10-22/POR-00334. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicaren artean NBEak erosteko adostutako hitzarmenari buruz eskatutako informazioaren gainekoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicaren artean NBEak erosteko adostutako hitzarmenari buruz eskatutako informazioaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak datorren ostegunean, 2022ko urriaren 13an, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak oraindik ez digu eman Sodena, CEN eta Albyn Medicaren artean NBEak erosteko adostutako hitzarmenari buruz eskatu genuen informazioa; zergatik da hori?

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/POR-00335. Galdera, gure komunitateko enpresei kostu energetikoen igoerari aurre egiten laguntzeko neurriei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gure komunitateko enpresei kostu energetikoen igoerari aurre egiten laguntzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2022ko urriaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak gure komunitateko enpresei kostu energetikoen igoerari aurre egiten laguntzeko?

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

10-21/POR-00436. Cop26 konferentziaren emaitzei buruzkoa.**GALDERA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ainhoa Aznárez Igarza andreak Cop26 konferentziaren emaitzei buruz aurkezturiko galdera erreti-

ratu izanaz. Galdera 2021eko azaroaren 23ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/POR-00295. Galdera, Alde Zaharra/II. Zabalguneko sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroko emagin-defizitari buruzkoa.**OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko galdera, Alde Zaharra/II. Zabalguneko sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroko emagin-

defizitari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 23ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

